

ZER ORDUTAN DA?

HELBURUA: ZERBAIT ZER ORDUTAN DEN GALDETZEN ETA ESATEN IKASTEA.

BESTELAKO HELBURUAK: EUSKALTEGIAN EUSKARAZ HITZ EGITEN HASTEA.

PROZEDURA:

A ataza: "Zer ordutan da?" galderari nola erantzuten zaion ikusi eta ariketa egin

- "Zer ordutan da?" orriko azalpen eta adibideak guztion artean komentatuko ditugu, egoki deritze-gun azalpenak eman eta zalantzak argituko ditugu (2. or.).
- Talde handian, ariketa zuzenduko dugu (ikus 3. or.).

B ataza: "Zer ordutan da?" galdetu eta erantzun elkarri

- Binaka, ordua galdetuko diote elkarri: galdetzen duen ikasleak, paper batean, ordua zenbakitan jarriko du (esaterako, 16:20), eta ikaskideak ordu hori erantzun beharko du.
- Txandaka ariko dira 5 bat minutuz (edo nolabaiteko ahozko trebezia hartu arte).

Oharra: eguneroko lexikoa ikasi ahala, ekintza bakoitza zer ordutan egiten duten galdetzen joango gara hurrengo eskola-egunetan.

ORDUAK NOLA DEKLINATU. ZER ORDUTAN?

Orduak (ordua eta minutuak) unitate banaezina osatzen du; beraz, deklinatzean, kasu-marka amaieran erantsi behar da. Adibidez:

ordu biAK > ordu bietan, ordu bietatik...

lau eta erdiAK > lau eta erdietan, lau eta erdietatik...

zazpiAK eta bost_ > zazpiak eta bostean, zazpiak eta bostetik...

seiAK eta hogeï > seiak eta hogeian, seiak eta hogeitik...

Amaieran -AK badago, pluralean deklinatuko da; bestela, singularrean; eta GUTXI(AGO) duten orduak mugagabean deklinatzen dira. Hona hemen taula bat:

Zer ordutan?

:00 -ETAN	
:05 -ean	:35 -TAN
:10 -ean	:40 -TAN
:15 -ETAN	:45 -TAN
:20 -an	:50 -TAN
:25 -ean	:55 -TAN
:30 -ETAN	

Ohar zaitetz ... **eta hogeï** formak ez duela loturazko **E**-a hartzen.

Ordua oso zehatz ematen denean, *minutuak* mugatuan deklinatzen dira. Adibidez:


Hirurak eta hamabi minutuAN (03:12an) etorriko da trena.

Lasterketa seiak eta berrogeita hamaikAN (06:51n) hasi da.

Iturria: Euskal Gramatika Osoa (Ilari Zubiri / Entzi Zubiri)

ZER ORDUTAN DA?

Begiratu irudiari eta adibideei:



Zer ordutan?

- 01:00 Ordu batEAN
- 02:00 Ordu biETAN
- 03:00 HiruETAN
- 04:00 LauETAN
- 05:00 BostETAN
- 06:00 SeiETAN
- 07:00 ZazpiETAN
- 08:00 ZortziETAN
- 09:00 BederatziETAN
- 10:00 HamarrETAN
- 11:00 HamaikETAN
- 12:00 HamabiETAN

Adi!

LAURDENA adierazteko, bi aukera dago:

Ordu bat_ eta laurdenETAN
Ordu bata eta laurdenETAN

Ordu bi_ eta laurdenETAN
Ordu biak eta laurdenETAN

















Sei_ eta laurdenETAN
Seiak eta laurdenETAN

Erantzun galdera idatziz: Zer ordutan da?

ZUZENKETA-ORRIA

ZER ORDUTAN DA?

■ ERANTZUN ZUZENAK:

			
seiak eta hamarrEAN	hamabiak eta laurdenETAN hamabi eta laurdenETAN	ordu bata eta hogeIAN	ordu bi eta erdiETAN
			
bostak hoge gutxi(ago)TAN	zazpiak laurden gutxi(ago)TAN	hirurak hamar gutxi(ago)TAN	zortziak bost gutxi(ago)TAN
			
bederatziak eta bostEAN	ordu bata eta laurdenETAN ordu bat eta laurdenETAN	hamaika eta erdiETAN	zortziak laurden gutxi(ago)TAN
			
laurak eta laurdenETAN	hamabiak hamar gutxi(ago)TAN	ordu biak hoge gutxi(ago)TAN	ordu bata eta hogeIAN

Adi!

LAURDENA adierazteko, bi aukera dago. Beraz, honako esaldi guztiak zuzenak dira:

- Ordu bat_ eta laurden**etan** da kontzertua.
- Ordu bata eta laurden**etan** da kontzertua.
- Ordu bata eta laurden**etan** dira etortzekoak Mikel eta Miren.
- Ordu bat_ eta laurden**etan** dira etortzekoak autobusak.
- Hiru eta laurden**etan** joango gara zure etxera.
- Hirurak eta laurden**etan** etorriko da Julen.

Oharra: NON eta ZER ORDUTAN berdin deklinatzen dira. Ohartu zarete?